

# 'Bretxa' eleberria euskaraz argitaratu dute eta 1813ari buruzko musikal erraldoi bat iragarri



Donostia

Kultura



Oihan Vega, Toti Martinez de Lezea eta Valen Moñux (Argazkia: Xalba Ramirez)

2022/03/15

Xalba Ramirez

Toti Martinez de Lezearen *Bretxa* eleberria euskaratu du Egin argitaletxeak, gaztelerez argitaratu eta hamasei urtera. Idazle gasteiztarra pozik agertu da gaur egindako aurkezpenean: “Nik ezin dut euskaraz idatzi, eta horregatik, opari bat da niretzat nire lan bat euskaraz ikustea”.

1813ko Donostiako erreketan du oinarri nobela historiko ezagunak, hiriak jasandako arpilaketa eta bortizkeria kontatzen du, emakumeek jasandako oinazean arreta jarritz. Izan ere, Martinez de Lezeak berak azpimarratu duenez, nobela historiko gehienetan “zenbat ziren bando batean, zenbat bestean, jeneralen izenak” eta gisako datuak dira garrantzitsuenak. Berak, aldiz, “herritarren ikuspegia” gailendu nahi izan zuen, “herritarrek bizi izandakoa” ekarriz lehen lerrora.

## Musikala 2023an

Aurkezpenean egon dira ere Oihan Vega eta Valen Moñux Bergara Antzerki Musikala taldeko kideak, euren proiektu berria aurkezten: *Bretxa* eleberrian oinarritutako “ikuskizun erraldoia”.

Proiektua duela sei urte hasi zen, Vega eta Moñux Martinez de Lezearen etxera joan zirenean. Proiektuaren hasiera “definitu” zuen esaldia bota zuen orduan Martinez de Lezeak: “Zuek erotuak zaudete. Eta etxe honetan eroak ongi etorriak dira”. Ordutik “dena erraztasunak” izan direla dio Vegak.

Ikuskizuna 2023ko urtarrilaren 13an estreinatuko da Viktoria Eugenia, eta dantzari, musikari eta aktoreen artean 150 parte hartzailetik gora izango ditu.

## “Donostia inoiz ikusi ez bezala”

Azaldu dutenez, “Totiren lana errespetatzea” izan da musikalaren oinarria, eta eleberriko pertsonaiekin osatuta dago istorioa. Horretaz gain, Jose Maria Leclercq historialariaren eta Jose Javier Pi Chevrot arkitektoen laguntza izan dute..

Pi Chevrotek 1813 aurretiko Donostiaren mapa bat du egina hiru dimentsioetan “munduan den bakarra” ziurrenik, eta LED pantaila handian ikusteko aukera izango da: “Donostia ikusiko duzue inoiz ikusi ez duzuen bezala”.

Hizkuntzari tratamendu berezia emango diote ere, pertsonaia bakoitzak bere berezko hizkuntzan hitz egingo du eta. Hau da, soldaduek frantsesez, ingelesez, gaztelaniaz eta portugesez mintzatu eta abestuko dute, eta herritarrek euskaraz. Bien arteko elkarriketak gaztelerez izango dira. Ohartarazi dute, herritarren istorioa kontatzen dutenez, musikalaren %85 izango dela euskaraz.

Martinez de Lezeak gehitu du bere eleberri gogorrenetako bat izan arren, garrantzitsua dela oraindik gaiari buruz hitz egitea, eta musikala antolatzea “ohore” handia dela berarentzat.

Bergara Antzerki Musikalaz gain, Bergarako Musika Eskolaren, Donostiako Union Artesana elkartearen, Donostiako Tempo 22 dantza akademiaren eta Donostia 31 Rekreaionista Elkartearen parte hartzea izango du ikuskizunak, besteak beste.



### Donostiako azken berrien buletina

Donostiako azken berriak biltzen ditu hiru eguneha behin. Astelehen, asteazken eta ostiraletan iristen zaizu posta elektronikora.

Izen-abizenak \*

Posta elektronikoa \*

Pribatasun Politika irakurri eta onartzen dut.

Harpidetu

Egunero, Donostia bere hartan erakutsi du IRUTXULOKO HITZAK. Argi dugu kalitatezko eta gertuko edukia eskaintzen jarraitzea dela gure helburua, baina, bide hori egiten jarraitzeko, ezinbestekoa da zure konpromisoa; izan ere, publizitatea eta erakundeen diru laguntzak ez dira nahikoa IRUTXULOKO HITZAREN etorkizuna bermatzeko.

Horregatik eta donostiarrok behar dugulako,

**egin zaitez HITZA** hite



### Azken 7 egunetako irakurrienak

**1** Amarako ekintzaile feminista bati eraso egin dio abortuaren kontrako "ultrakatoliko" batek

2022/03/14

Amara

**2** Elkarretaratzea egin dute Amarako ekintzaile feminista batek jasandako erasoa salatzen

2022/03/14

Amara





**oliba-olio  
birjina estra**



### Donostiako azken berrien buletina

Donostiako azken berriak biltzen ditu hiru egunean behin.  
Astelohen, asteazken eta ostiraletan iristen zaizu posta elektronikora.

**Pribatutasun Politika** irakurri eta onartzen dut.

[Harpidetu](#)

943-46 72 36  
donostia@hitza.eus  
Ametzagaña, 19 20012 Donostia

Nor gara  
Publizitatea



Babesleak:



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN  
Euskara

Cookieak

Pribatutasun politika